



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 23a

79. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer jarrera izan den eta zer zuzemen egin diren Foru Hobetzean aurreikusitako ikerkuntza zientifiko eta teknikoari buruzko eskumena eskuratzeko, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (3. or.).
- Galdera, salaketa gutxi jartzeagatik foruzain bati ezarri dioten zehapenari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (4. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioaren edukia; alegia, ezgaitasunak dituzten pertsonak giza eskubideen subjektu gisa berdintasunez aintzat hartuak izan daitezen sustatzea. Hartara, Nafarroako Parlamentuak nazioarteko erkidegoa osatzen duten herrialdeak premiatzen ditu eduki hori aplikatu, gara, babes eta berma dezaten.

2. Nafarroako Parlamentua prest dago Konbentzioan jasotako balioak, printzipioak, aginduak eta xedapenak osorik eta eraginkortasunez ezartzen laguntzeko, Legebiltzar honek antolatu edo/eta sustatutako ekintza guztietan aplikatuz, eta zaindu egiten du pertsona horiek irisgarritasun osoa izan dezaten eta aukera berdintasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko duten eskubidea bete dadin. Hartara, Nafarroako Parlamentuak adierazpen hau eta ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak, Nazio Batuen Konbentzioak onetsiak, argitaratzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan, behar adina foru lege edo/eta xedapen sustatzeko eta berrikusi eta aldatu beharrekoekin egin beharrekoa egiteko, ezgaitasunak dituzten pertsonak gainerako herritarrekiko aukera berdintasunean gizarteratzen direla bermatzearen.

4. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu eta gaitzesten du Konbentzioan jasotako printzipio eta xedapenen urraketa oro eta diskriminaziorik ez jasateko oinarritzko eskubidea urratzen duen ekintza oro, eta konpromisoa hartzen du horiek denak desagerrarazteko, baldin eta bere eskumenen esparrukoak badira.

5. Azkenik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko gainontzeko erakundeak eta entitateak, hala publikoak nola pribatuak, premiatzen ditu, adierazpen instituzional honekin bat egin dezaten eta Konbentzioan jasotako printzipioak eta xedapenak aplikatu eta errespetatu dituzten, zeinek bere eskumenen eta betebeharren esparruan.”

Iruñean, 2008ko irailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer jarrera izan den eta zer zuzemen egin diren Foru Hobetzean aurreikusitako ikerkuntza zientifiko eta teknikoari buruzko eskumena eskuratzeko.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer jarrera izan den eta zer zuzemen egin diren Foru Hobetzean aurreikusitako ikerkuntza zientifiko eta teknikoari buruzko eskumena eskuratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzutako honako ezohiko galdera aurkeztu du, irailaren 25erako eta 26rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunak erantzun dezan:

Zer jarrera izan da eta zer zuzemen egin dira Foru Hobetzeko 44. artikuluko 7. idatz-zatian aurreikusitako eskumena –ikerkuntza zientifiko eta teknikoa– eskuratzeko? Kasua bada, zergatik ez da ez lortu ez eskatu orain eztabaidagai den transferentzia hori, kontuan hartuta hain interesgarria dela Nafarroaren etorkizunerako?

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, salaketa gutxi jartzeagatik foruzain bati ezarri dioten zehapenari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, salaketa gutxi jartzeagatik foruzain bati ezarri dioten zehapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Aurreko egunotan hedabideen bidez jakin izan dugu ezen zehapen bat ezarri diotela foruzain bati –15 egun enplegu eta soldatarik gabe–, salaketa gutxi jarri duelakoan eta gainontzeko foruzainek izapidetutako isunen estandarrera ez heltzeagatik.

Zer arrazoi egon da polizia horri zehapena ezartzeko?

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	47,00 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,25 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,40 »